



**kantu
liburua
eskuan**

drogeteniturri

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 152. alea 2007ko abendua

Ermuan kantuan liburua kalean

Azaroaren 24an, San Martin Kulturalaren baitan, Euskal Birusak martxan jarri duen "Ermuan kantuan" proiektua aurkeztu zen. Lehenengo kalejira hartan gainera, gonbidatu bereziak izan ziren ermuarrekin batera, Donostiako Bagera Euskara Elkarteko kantuzaleak. Guztira, bi orduz aritu

ziren makina bat lagun Ermuko kaleakeuren abestiekin girotzen.

Kantatzeko liburua

Hemendik aurrera egiten diren hitzorduetarako, Euskal Birusak kaleratu duen kantu-liburua eskuratu ahal izango da. Bertan, kalean abestuko diren zenbait kantu bildu dira, guztira 76 kantu. Lantaldeak kantuen aukeraketa egiteko 70etik gora ermuarrei euren gustokoak ziren kantuen zerrenda eskatu zien. Hortik abiatu zen gaur egun poltsikorako moduko liburua dena eta Ermuko eta Mallabiko taberna, denda eta enpresen publizitatea du barruan, kantuekin batera. Diseinua Marcos Gimeno Vesga ermuarrrak egin du. 800 ale kaleratu dira eta Euskal Biruseko bazkideek etxean jasoko dute doan. Bazkide ez direnek liburua eskuratu nahi izanez gero, Xiripot eta Maribel liburudendetan eta Quetzal jantxidendan eros dezakete 5 eurotan. Halaber, Euskal Biruseko kideek abenduaren 22an eguerdiko 12etatik 14:00etara salgai jarriko dituzte plazan.



Hurrengo hitzordua

Abestea gustuko eta kalerik kale kantuan egin nahi duten guztiek, abenduaren 29an eguerdiko 12:00etan Orbe Kardinalaren plazan izango dute hurrengo hitzordua. Hilaren 27an entsegua egingo da arratsaldeko 7etan Lobianon.

Euskal Birusak ekimen honen bitartez, aintzinako zein gaur egungo kantuen inguruan, adin guztietako ermuarrrak bildu eta une gozagarriak pasatzeko aukera eskaini nahi du. Horregatik sustatzaileek argi utzi nahi dute, ez dela abesbatza profesionala eta kantuan egitea gustuko duen edonorentzat zabalik dagoen ekimena dela.

Proposamen kultural honek baditu bestelako helburuak ere. Alde batetik, lagun artean kantatzeko ohitura berreskuratzea eta bestetik, ohitura hori eta horren inguruan sortzen diren harremanak, ermuarren artean euskararen erabilera areagotzeko erabiltzea.

Era berean proiektuaren bultzatzaileek diotenez, Ermuan kantuan ekimenak, aukera emango du, "denontzako onuragarriak izango diren zenbait alor indartzeko, besteak beste, belaundaldien arteko harremanak, ondare kulturalaren kontserbazioa, kultura parte-hartzailea eta kale-etako bizitasuna".



Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak
GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

OPTICA J. CASADO



Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería TITANIK



Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83